

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Gregorio Gorroño Uribeganekoa
Baxixa*

*Iurreta, Bizkaia
(1918-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Oromiño auzoko Trazaola "Trazola" baserrian jaio zen 1918. urtean eta bertan bizi izan zen beti. Aita berriztarra zuen. Herri-basoez arduratu izan zen beti. Basoan, paper-lantegian eta baserriko lanetan aritu zen beharrean. Itxarkundia batailoiko gudaria. Emaztea zornotzarra zuen. Bere bi grabaketa jaso ditugu: lehenegoa, 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa bat da, HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako; eta, bigarrena, "lurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotakoa.

Zintak

IUR-006

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Esturo, Idoia
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

IUR-036

- **Proiektua:** lurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Errazti Igartua, Alberto

IUR-057

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aurre Azurmendi, Jon
- **Data:** 1985-07-15
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** VHS Standard
- **Emalea:** Aristondo, Iñaki

Pasarteak

1. Iurretako kofradiak I

- **Erref:** IUR-006/001
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Pasarte honetan kontatzen duena nagusiei entzundako da, Mendizabal boterean zegoenekoa. Inguruko basoetako zorrak Durangoko eta Iurretako herriek ordaindu behar izan zituztenean, dirurik ez zegoela eta Iurretako herrian sei kofradia batu ziren zorrei aurre egiteko.

Transkripzioa

Onen basuen ixekera sera, sera a: Onek basuok pa, lenauko denporan baten, esaten dabie lengo sarrak, Mendizabal gobernanteie ixen sanien e... eiabela ba, nasiñuek, ba sor batzuk ein sittuela, gero ba ayuntamientueri botautzosan karga batzuk, gobiernu sentralak, da gero ba, ayuntamentuek Durengo (Durango) Ijorreta (Iurreta) ayuntamentuek eseuken dirurik e, orrek sorrok pagerako estadiueri, da lelangoko pruebie einbierrixeaben segun lenauko sarren esakerak ba, propietarijjueri emon gurijjetzesan ba onek basuok pagetan basittuen estadiuek ipinitzesan sorrak, baya arek pe esien kapastu ordaintzeko orrek sorrok, da gero ba plasuek allegeubiaben da estadiue eguen dispuesto jabetzeko onek basuok berak, da orduen se iaben Ijorretako ayuntamentuek? Ba sei Kofradijja reunido sittuen, da sei kofradijari ofresidutzien ba ze, bueno onek sorrok pagetanbosues e, nik ordainddukot, dirurik es baia ordainddukot, oseake baso Iurrekin onekin ordainddukot, da onek basuok dekie istorijja bat, oseake, Ijorretak pageuaben dirurik geijjen, Ijorretak deko etariarik geijjen, hurrengo San Faustok pageuaben dirurik geijjen, da proporsiñuen a'pe deko etaria geijjau, da gero ba sera: «Orozketak». Gero «Santa marina», da «San Markos», da gitxien pageuabena san e... gitxien, ixen be txikijje da, oso arlo gitxi arrapetan deu «Gojjuriko» (Goiuriako) kofradijje, besinddadie be txikijje da, da enproporsion ba txikijjena da: Gojjuriko kofradijje, oseake seiren etareak suponietan dabien eun da irurogetamasortzi etarea, serten die lengo eskritura sarretan. Baia lenau orrek mojonamentuek, danak daus eindde, bakotxa bere parselak da bakotxa bere terrenue, da bakotxa, bere Iurre deko kofradijja bakotxak. Baia beti beti kolabore'u, kolabore'u, kontribusiñuek pe konjuntuen pagetan die, aministrasiñue en conjunto eittu danok, oseake, kolaboretau da danontzat iguel. Gero, artu dien diruen amnistrasiñue ixen da, bueno: ciento setenta millones artu die kasureko esta, da onen amnistrasiñue da ba pageu abogeuen goraberak da gastu gutijjek eiñ, da gero repartuek ondie, da ori diruori ba bakotxak errepartetan daniel, kofradijja bakotxak, ba sortzi milloer beratziz esta kasureko da nesesidaderik andijjenak dausen lekuetara, bai kamiñue, bai asfaltue, bai iberduero, bai telefonue, bai iturrijje, bai saniamentuek da orrek gausa gustijjetarako ba enplieu die onek diruok bajo recibo, bajo el recibo, responsabilidade gustijjas, aitzosu, da kofradijja gustijjek kolaboretan dabie olantxik. Da dekus, esiertu bat dau, de momento, askok kritikeu deu, Durengoko Ayuntamentuek pe kritikeu deu. Durengoko Ayuntamentuek gurixendabena: guk esteiule jatortu, patxaras, da ondo

resulteuda ondo amnistreu deigun bes, oseake, asko estimeuko aben Durengoko Ayuntamentuek e..., guk emen burrukatu, ero asarre bat atara ero gasteu malamanera, ero granujada bat eiñ aitzozu. Da arek eurek ba eingo abiesan orrek bierrok Durengoko Ayuntamentuen se legalak estie ixen da tranposuek eta rateruek da lapurretan ein gurixendabienak ixen ie diretuek eurek.

2. Iurretako kofradiak II

- **Erref:** IUR-006/003
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Iberduerok lineak euren lurretatik pasatzeko firmak batzen ibili ziren lurren desjabetzerako. Lurren truke kofradia guztietakoek dirua jaso zuten. Baina udaletik diru hori ogasunari emateko agindu zien eta arazoak sortu ziren.</p>

Transkripzioa

Guk e..., artu gañunien, oseake, paseu sanien linie «Lasier selaitik» (Lasier-Zelai) Itxaso-Karanza paseu sanien, etorri sen Iberduero geure etxera etorri sen neuana, da eruen niñoyen mojoyek erakusten, eruen niñoyen «Laster selaitik» geure terrenue sein sen, da onradamentien metalikuen pageustien egune, da enfin. Gero etorri sen espropiasañue, etorri sen, da firmak eskatu abiesan, firmak eskatu abiesan da, oba es! firmeuko eskentzen ba Iberduerori? Da gero aren terrenuen alderako etorri sen diru Bat ciento setenta y tres mil pesetas ixen san diru ori, da Iberduero, etorri onaxe, «Trasolara», da ontxe gausen mai onetan, e, alabie neskatoxue da ementxe pageusten Iberdueroko serak, espropiasañoko injiñerue 173 mil pesetas, gero juen gintzesan Don Carmeloana, Bilbora, Mendibe ta bijjok da esauskun:

-Koño! Ser dabixue?

-Ta auxe ta auxe, onantxik ta onantxik etorri gara se deskoiduen bat eiñesteigun Iberdueron, ba neuk teket dirue etxien, da responsabiidade txiki bat da, txiki bat da neuretzat, iñoen dirie, seoser paseuko balitze ba enfin.

-Es, es, es es... juen da seuek gurosuen banku baten eixue ingresue, eixue dibidendo por seis, sei kofradijjena eixue ingresue ta esta esebe pasetan. Ori abixu ona da, gausen e... momentuetarako, ori abixu ona da..

Bueno, gu be pixkat asi ein giñen. Iberduerok selan pageuskun ori propiedadeko diruori, da serien, bueno ba pixkat sabaltzie komunidu ixen jjakun, da pixkat jentie entereuditten ba. Koño, onantxik eta onantxik Iberduerok pageuskus onek diruok eta enfin, ba olan. Gero ba Ayuntamentuek eiaben estudixo txikijjen bat, eiaben, «geu gabixek emen gusurras da kontuas da lapurretan einguran, da esinjuuok eiñ, da oinbe Iberduerok ba, pageutziek eurori erresoe justuas, registro propiedad eurek kosta be eittosak, eurek tosak ixen be, da guk ilegalmente kendu ein

gurutzius, da oiñ orrek di ruok setara kendukotzius? Geure suposisiño bat da, Ayuntamentuek eiabiela pleno txikijien bat, eiabiela eurok neusitxuok, guri onek diruok sertzeko, da oinbe or deket kartie, da deku danak de recuerdo esanutzen alkateari, esanutzen ba se:

-Ba ik iñdduala bakie? Ik estok bakerik eiñ, se iñungo alkatiek, iru alkate paseijueus da, beste alkate bijien firmarik etxekuat etxien, irie bai, ire firmie antxe jjekuat. Da motibo ganera, orrek los ciento setenta y tres mil pesetas Iberduerok ernouskusenak e, berrogetasortzi orduko plasuen barruen e , entregetako ero asiendan ero J uesien, Primera Instanciako Juesien entregetako berrogeta sortzi orduko plasuen barruen. Bueno batzartu giñen da, bata en da bestiek an da bestiek serien, da bueno, ni neu es, ni neu artu neure libretie da neuri toketan jjatan dirue, etara Banco Biskajatik eta Hacienda da Juzgado de Primera Instancian entregeu baiño lenau karselan usteldu eingo nok, baia ni es e..., seni, lenbe egonda najjauk karselan, au amenasuau ganera txikijie, ni neuk es. Bestiek pe ba bueno.

Danok atzeratu abien da pageu sien berrogetasortzi ordu, ingurok, da danak pageu sien. Da kartiek ipintten deu, kartiek ipintten deu: ori diruori los ciento setenta y tres mil pesetas e... Iberduerotik artu gañun dirue, berrogeta sortzi orduko plasuen entregetako Hacienda edo bestien, len be esan dot baia repetidu einbiot atzena emoteko. Da berrogeta sortzi orduko plasuen barruen entregetan espagaiñun ori diruori selan ixengo san parte emonda Gobernadorie, aitzosu, da areattik esanutzen alkateari:

-Bakiek eiñdduasela da esai egon e. . .se ik eiñualakorik iñor etxok eiñ, querella kriminalien sartu atzenien e... Iberduerok onrradamentien pageu dirue, da orrek berrogeta sortzi orduko plasuen barruen entregetan espagañusen e... ondiño kerella kriminalien sartu geu? Se injjueu ba? Lenak gitxi osak ala? Ba bakiek ik iñdduasela diñok? Bakiek? Ba anjjekueuk ire kartie da ire fimie an jjekueuk de recuerdo geu garien deporarako, da gure atzekuentzat pe entxe geldittukok eterno sekula sekuiorun amen.

-Ori es Gorroño!

-Ori es, orrek olantxi ixenbe einbijjok, orrek geusok esileijjes borreu, seuk eiñikuek tosak, gu es gosak juen orrek geusok ipintte, da liorik ipintten bes, gu gure lekuen ongosak, geure propiedadiok, geure propiedadien aministrasiñuen eruen eiñ gurixendosues, es erresoias e.... por abuso de autorida, por abuso de autorida, da gixontasunik estosue demostreu, iñopes, iru alkate paseujjus da irurok por estilo ixen sarie guretzat, se suen borondatie ikusi jjueu, suek lema bat eruen dosue danok, selan ero alan por aburrimiento eruengosuesela pentzetan ixen dosue, guri lau baserrittar kokoluori, bia gu aburridu eraitteko, estok kapas Durengoko

Auiuntamentue, da erri gustijje bes, se gu, gu milloyek ofresidute gausek tradisiñue eittiarren, tradisiñue eittiarren e... da ori prepareu aben gixonari sekule geijjau arpire begittu be etxutxiuk eiñ, sekule begittu bes, eiñ be estetziu eiñdde, asike, onrradamentien guk oixe da amistrasiñue. Onek istoriale andijje deko, onek ordubetekue be badeko esta, baia laburpen baten, seuek konforne basarie."

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com